

Euskararen Gaitasun Agiria

IDAZLANA 07-03-10

- 1. Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
- 1. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
- 2. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) zuzentasuna.*
- 4. Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
- 5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
- 6. Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*


Euskararen Gaitasun Agiria

GATA GAUR EGUNEKO JOSTAILUAK



Jostailuak, jolasa baina gehiago?

☐ Bideo-jokoek eta jostailu elektronikoek betiko jostailuak baztertzen dituzte



Lara Croft, Tomb Raider bideojoko arrakastatsuko heroiak.
ALDAKETA 16, 66 zk.

"Jostailuak haurrarentzat izan behar du, baina aita edo ama haurrarekin jolasten jartzen duena, hori da benetako jostailua"



Eroslea elebistako iragarkiek eta marrazki bizidunek erakartzen dute



HABE, 187 zk.

Jostailu batzuek balio positiboak sustatzen dituzte; beste batzuek, aldiz, joera negatiboak



Argazkia: X. EIGETABAI HABE, 187 zk.



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:


- Noiz erosten dira jostailuak? Non? Lehengo eta oraingo joerak.
- Jostailu motak: didaktikoak, irudimena lantzekoak, gerrakoak, elektronikoak, bakarkakoak, taldean jolastekoak... Neskentzako eta mutilentzako jostailuak?
- Kontuan izan beharreko irizpideak: adina, jostailuaren segurtasuna, zer balore sustatzen dituen...
- Haurrek gero eta jostailu gehiago: kontsumismoa, aberastasuna...?

Euskararen Gaitasun Agiria

GATA KLIMA ALDAKETA



Aldaketa begi-bistakoa eta atzera buelta bakoa dela diote





2100erako, planeta 1,8 eta 4 gradu artean berotu eta itsas mailak gora egingo duela ohartarazi dute (Paris, goi bilera, 2006)

Kyotoko protokoloa 2012ra artekoa da. Haren ordezkoa lehenbailehen prestatu behar da

«Ezin da jarraitu ezer gertatuko ez balitz bezala»

(Achim Steiner, NBERen Ingurumenerako zuzendaria)

- ⇒ **Gradu bat gehiago:** glaziarrek urtu, gaixotasun gehiago
- ⇒ **Bi gradu gehiago:** ura eskasago, uholdeak itsasertzetan
- ⇒ **Hiru gradu gehiago:** Europa lehorrago, montzoiak bortitzagoak
- ⇒ **Lau gradu gehiago:** ur eskasia, 300 milioi uholdeen arriskuan
- ⇒ **Bost gradu gehiago:** ozeanoak hautsita, ekosistema hondatuta



Zenbat CO ₂ ekoizten dugu?	kg
Automobilak (20.000 km/urt)	2.000
Lanpara halogeno batek	10,8
Ordenadore batek	10,5
Garbigailuak	7,8
Hozkailuak	7,3
Telebistak	1,7
FAMILIA BATEK, URTERO	5 tona

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Berotegi efektua, eztabaidagai aspaldion: ekologistak, zientzialariak, gobernuak, enpresariak...
- Klima aldaketa (≠ eguraldi aldaketa): aurreikuspenak, ondorioak munduan, gure bizimoduan...
- Ikuspuntuak: jarrera katastrofista dela, ezer ez egitea jarrera burugabea, alarmismo merkea...
- Aipatzen diren irtenbideak: energia-iturri garbiak, energia nuklearra, kontsumoa gutxitzea...
- Planeta ala gure bizimodua arriskuan? Gutako bakoitzak zer egin dezake?